

Implementation Document  
Principles for Responsible Banking  
• Est. 2019 •  
Official

UN   
environment programme | finance initiative

Principles for Responsible Banking

# Banku-jarduera Arduratsuaren

printzipioak | 2026



LABORAL  
kutxa

## 1. printzipioa: **Lerrokatzea**



LABORAL Kutxa kreditu-kooperatiba bat da, eta Arrasaten (Gipuzkoa, Euskadi) du egoitza soziala. Espainiako estatuko iparralde osoan du presentzia komertziala; baina, bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Komunitatean. Gaur egun, 284 sukurtsal eta 1.100.000 bezero baino gehiago ditu.

Finantza- eta aseguru-arloetako produktu eta zerbitzu guztiak eskaintzen dizkie finantza-erakundeak bezeroei: hipotekak, merkataritza-maileguak, kontsumorako maileguak, inbertsio-funtsak, aseguruak eta ordainbideak, besteak beste. Hipoteken negozioa nabarmentzen da bereziki.

Caja Laboral Popular 1959. urtean sortu zen, gizarte-ekonomiari eta inguruko kooperatibei laguntza finantzarioa emateko eta, aldi berean, bere komunitatearen garapen ekonomiko eta soziala bultzatzeko helburu nagusiarekin.

LABORAL Kutxa kreditu-kooperatiba bat da; beraz, haren funtzio nagusia ez da akziodunen epe laburreko balioa maximizatzea, baizik eta epe luzera bere inguruneari ondare positibo bat uztea.

60 urte baino gehiagoan, balio horiek gidatu dituzte bai LABORAL Kutxaren estrategia eta bai erabaki komertzialak. Horiei, nazioarteko esparrurik garrantzitsuenak gehitu zaizkie; besteak beste, garapen jasangarrirako helburuak (GJHak) eta Klimari buruzko Parisko Hitzarmena. GJHei dagokienez, erakundeak 17 helburuetako bakoitzean ekarpena egin nahi badu ere, hauek lehenesten ditu bere izaeragatik: hazkunde ekonomikoa (8.a), azpiegitura (9.a) eta desberdintasunak murriztea (10.a).

Erreferentziak

[Urteko kontuak](#)<sup>1</sup>  
NEIS 2

<sup>1</sup> [https://korporatiboa.laboralkutxa.com/src/uploads/2026/05/LK-ctas-consolidadas-31-12-25-EU\\_WEB.pdf](https://korporatiboa.laboralkutxa.com/src/uploads/2026/05/LK-ctas-consolidadas-31-12-25-EU_WEB.pdf)

## 1. printzipioa: **Lerrokatzea**

---

Azken urteotan, NBEren Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioei (BAPei) atxiki zaie kooperatiba —130 entitate sortzaileetako bat izan zen—, eta, 2024an, Global Alliance for Banking on Values (GABV) erakundearekin egin du bat, banku etikoen eta balioen munduko elkarte nagusiarekin —LK du entitaterik handiena eta bakarra Estatuan—.

2023an, kooperatibak berrikuspen-prozesu bat jarri zuen abian, bere Asmoa, Misioa eta Balioak gaur egungo ingurunera egokitzeko. Zentzua izeneko gogoeta hartan, kooperatibak arreta-gunetzat dituen 3 zutaberi garrantzitsuenak identifikatu ziren: Pertsonak (langileak), Bezeroak eta Gizartea. Era berean, Asmoa eta Legatua zehaztu ziren: «Komunitate oparagoak, berdinzaleagoak eta jasangarriagoak eraikitzea, kultura kooperatibo solidario eta erantzukidea zabalduz». Aterki horren pean lerrokatzen dira LABORAL Kutxaren estrategia eta erabaki guztiak.

Horren isla dira ESG balioekin lotutako hainbat politika, hala nola [Jasangarritasun Politika](#) eta [ESG Inbertsio, Finantzaketa eta Aseguramendu Politika](#). LABORAL Kutxaren finantza- eta aseguru-jardueraren jasangarritasunaren funtsezko oinarriak zehazten dira horietan.

Zentzua eta ESG balioak ez ezik, materialtasun bikoitzeko analisiaren ondorioak ere eraman dira kooperatibaren plan estrategikoetara eta kudeaketa-planetara. Materialtasun bikoitzeko analisia jasangarritasunaren jakinarazpen-prozesuaren barruan egin zen, BAPen inpaktuen analisia bezala. Horren erakusgarri da 2025-2027 aldirako Plan Estrategikoa, 4 bektoreren artean «Jasangarritasuna-ESG» atala finkatua duena.

### Erreferentziak

[Urteko kontuak](#)<sup>1</sup>  
NEIS 2

<sup>1</sup> [https://korporatiboa.laboralkutxa.com/src/uploads/2026/05/LK-ctas-consolidadas-31-12-25-EU\\_WEB.pdf](https://korporatiboa.laboralkutxa.com/src/uploads/2026/05/LK-ctas-consolidadas-31-12-25-EU_WEB.pdf)

## 1. printzipioa: **Lerrokatzea**

---

Plan Estrategiko horretan, gizarte- eta ingurumen-alderdiak uztartzen ditugu, etxebizitzaren birgaitze energetikoen negozioan agerian geratzen den moduan; Izan ere, ekimen horiek ingurumen-alderdia izaten dute —energia-efizientzia hobetzen baitute—, bai eta gizarte-alderdia ere —irisgarritasun-hobekuntzak direla eta—.

Horrez gain, erakundeak ESG arriskuak txertatzen jarraitzen du, batik bat faktore klimatikoekin eta naturarekin lotutakoak —estres hidrikoa barne hartuta—. Analisi hori elementu nagusietako bat da urtero egiten den Kapitalaren eta Likideziaren Autoebaluazio Txostenean (KLATean).

Egunerokotasunean, honako hauetan islatzen dira balio horiek: gizarte-ekonomiaren finantzaketan, ESG produktu espezifikoaren katalogoan, inbertsio-funtsen zorroan —funtsik gehienek jasangarritasun-ezaugarri handiak dituzte— eta Altxortegiak ESG inbertsio-irizpideak aplikatzean inbertsio propioetan. Azpimarratzekoa da, halaber, lortutako etekin bakoitza ere, horien % 25 ekimen sozialetara eta MONDRAGONen proiektu kooperatiboa garatzera bideratzen baita.

### Erreferentziak

[Urteko kontuak<sup>1</sup>](#)  
NEIS 2

---

<sup>1</sup> [https://korporatiboa.laboralkutxa.com/src/uploads/2026/05/LK-ctas-consolidadas-31-12-25-EU\\_WEB.pdf](https://korporatiboa.laboralkutxa.com/src/uploads/2026/05/LK-ctas-consolidadas-31-12-25-EU_WEB.pdf)

## 2. printzipioa: **Eragina eta helburuak ezartzea**



CSRD (Corporate Sustainability Reporting Directive) jasagarritasun-memoriarako, materialtasun bikoitzeko analisi bat egin da, eta LABORAL Kutxak jasagarritasunean dituen eragin, arrisku eta aukera nagusiak aztertu eta neurtu dira, bai eraginaren ikuspegitik, bai finantzen ikuspegitik. Materialtasun-analisi horretan, 4 segmentutako 385.000 bezero baino gehiagori kontsultatu zaie; hauek dira segmentuok: Banka Pertsonala, Kide-Top (loturadunak), Enpresak, eta Autonomoak eta mikroenpresak —kooperatibak 1.136.366 bezero ditu guztira—.

Arriskuen materialtasunari buruzko analisiari dagokionez, eta aurreko atalean azaldu denez, faktore klimatikoekin eta naturarekin lotutako arriskuak ere aztertu dira, baita estres hidrikoa ere, eta ondorioztatu da arrisku horiek ez dutela materialtasun nabarmenik

Orobat, materialtasun bikoitzeko analisisian, Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioen eragina ere aztertu da; besteak beste, irismena, espazio-eskala, testuingurua, garrantzia eta beste ezaugarri batzuk hartu dira kontuan.

Eragin positiboei dagokienez, kooperatibak ekonomia erreala finantzatzeko erabiltzen ditu baliabiderik gehienak, eta horrek inguruko kezka nagusiak konpontzen laguntzen du, bai [Euskadin](#), bai [Espainian](#). Esate baterako, azpimarratzekoa da etxebizitza eskuratzeko autonomo, mikroenpresa eta ETEei (hots, enplegatzaile nagusiei) ematen dien finantzaketa, eta gizarte-ekonomiara bideratzen duena.

Erreferentziak

[Urteko kontuak](#)<sup>2</sup>  
NEIS 2

<sup>2</sup> [https://korporatiboa.laboralkutxa.com/src/uploads/2026/05/LK-ctas-consolidadas-31-12-25-EU\\_WEB.pdf](https://korporatiboa.laboralkutxa.com/src/uploads/2026/05/LK-ctas-consolidadas-31-12-25-EU_WEB.pdf)

## 2. printzipioa: **Eragina eta helburuak ezartzea**

---

Ildo horretan, Finantzaketa Jasangarriaren Esparru (FJE) bat dago, eta, bertan, arlo sozialean (gizarte-inklusioan, inklusio ekonomikoan, gizarte-ekonomian...) eta ingurumenekoan (biodibertsitatean, mugikortasun garbian, etxebizitza berdean, energia berriztagarrietan...) eragin positiboa duten alderdiak identifikatzen dira.

Gainera, **Gaztenpresa** fundazioa ere badago, xedetzat ekintzaileei laguntzea duena, beren negozioak sortu eta sendotu ahal izan ditzaten. Hasierako ideiatik enpresa ireki eta funtzionatzen hasi arteko laguntza ematen du, negozio-plana egiteko aholkularitza, finantzaketa bilaketa, prestakuntza eta mentoring-programak barne. Kalitatezko enplegua sortzea eta tokiko ekonomia dinamizatzea da fundazioaren helburua, eta, horretarako, enpresa-proiektu berriei laguntzen die, ahalik eta arrakasta-bermerik handienarekin atera daitezen aurrera. 2025ean, 856 enplegu eta 438 enpresa sortu ziren Gaztenpresaren bidez.

Inpaktu negatiboen artean, ingurumenean eta klima-aldaketan eragiten dutenak identifikatu dira.

Gure inguruko enpresei ematen diegun finantza-laguntzak, enplegua eta aberastasuna sortzeaz gain, kutsaduraren eta CO<sub>2</sub>-a isurtzearen arriskuak dakartza berekin. Kooperatibak badaki hori, eta arriskuok txikitzeko konpromisoa du. Horrenbestez, isurtzen duen CO<sub>2</sub>-aren kantitateari buruzko azterketa egiten du urtero, besteak beste, eta finantzaketa- eta inbertsio-zorroaren irismen eta isurtze guztiak hartzen ditu aintzat. Ildo berean, 2026. urtearen hasieran, deskarbonizazio-plan bat onartu zuen, gehien kutsatzen duten sektorerik esanguratsuenetan arreta jarrita.

### Erreferentziak

[Urteko kontuak<sup>2</sup>](#)  
NEIS 2

---

<sup>2</sup> [https://korporatiboa.laboralkutxa.com/src/uploads/2026/05/LK-ctas-consolidadas-31-12-25-EU\\_WEB.pdf](https://korporatiboa.laboralkutxa.com/src/uploads/2026/05/LK-ctas-consolidadas-31-12-25-EU_WEB.pdf)

## 2. printzipioa: **Eragina eta helburuak ezartzea**

Eragin positiboak zein negatiboak aztertutakoan, positiboak indartzeko eta negatiboak arintzeko esanguratsuenak iruditzen zaizkion bi KPlak lehenetsi ditu LABORAL Kutxak. Horiek, gai garrantzitsuak izateaz gain, negozio-bolumen handiak dituzte. KPI horiei jarraipena egiten die kooperatibako hainbat organok. Gainera, haiek hobetzeko estrategiak ezarri dira, eta finantzaketa-bolumenak handitzeko helburua dago:

### 1. Erkidegoak birgaitzea

LABORAL Kutxak produktu espezifiko bat du jabeen erkidegoak eraberritzeko eta birgaitzeko. Aipatzekoa da jarduketa horiek jasangarriak direla beti, haien bidez hobekuntzak egiten baitira energia-efizientzian zein irisgarritasunean.

Horri esker, alde batetik, energia-efizientiaren arloan egindako hobekuntzen bidez klima-aldaketa arintzen lagundu nahi da, materialtasun-diagnostikoan hautemandako inpaktu negatiboetako bat txikituz. Bestetik, inpaktu positiboa sortzen da etxebizitza eskuratzeari begira; izan ere, birgaitzeei esker, etxebizitzek bizitzeko egokiak izaten jarraitzen dute. Azkenik, negozio-lerro hori suspertze-eragile moduko bat da zenbait sektore ekonomikorentzat.

2025. urtean, 222 milioi euroko finantzaketa onartu zen horrelako proiektuetarako.

### Erreferentziak

[Urteko kontuak<sup>2</sup>](#)  
NEIS 2

<sup>2</sup> [https://korporatiboa.laboralkutxa.com/src/uploads/2026/05/LK-ctas-consolidadas-31-12-25-EU\\_WEB.pdf](https://korporatiboa.laboralkutxa.com/src/uploads/2026/05/LK-ctas-consolidadas-31-12-25-EU_WEB.pdf)

## 2. printzipioa: **Eragina eta helburuak ezartzea**

---

### 2. Inklusio ekonomikoa eta gizarte-ekonomia babestea

Inpaktu-analisan ondorioztatu dugunez, eragin positiboa du LABORAL Kutxak inklusio ekonomikoari — mikroenpresak eta ETEak barne hartuta— eta gizarte-ekonomiari ematen dien finantza-babesak. Hori dela eta, KPI gisa hautatu da entitatearen eragiketarik garrantzitsuenen barruan sektore horiei emandako finantzaketaren bolumena.

2025. urtearen amaieran, 503 milioi euroko finantzaketa biltzen zuen zorroak.

### Erreferentziak

[Urteko kontuak](#)<sup>2</sup>  
NEIS 2

---

<sup>2</sup> [https://korporatiboa.laboralkutxa.com/src/uploads/2026/05/LK-ctas-consolidadas-31-12-25-EU\\_WEB.pdf](https://korporatiboa.laboralkutxa.com/src/uploads/2026/05/LK-ctas-consolidadas-31-12-25-EU_WEB.pdf)

### 3. printzipioa: **Bezeroak eta kontsumitzaileak**



1. printzipioan aipatuenez, 2023an Asmoa, Misioa eta Balioak birdefinitu ziren. Misioaren arabera, «LABORAL Kutxaren eta kreditu-kooperatiba osatzen dugunon konpromisoa da gure bezeroei finantza- eta aseguru-zerbitzu hurbila, profesionala eta zintzoa eskaintzea, beren helburuak eta ongizatea lor ditzaten laguntzeko». Identifikatutako 3 ardatzen artean, Bezeroak dira bat, eta aipatzen diren balioen artean honako hauek azpimarratu ditzakegu: «Epe luzeko harreman hurbila, profesionala eta zintzoa sustatzen dugu», «Pertsonengan oinarritutako harremana bultzatuko dugu, kalitate goreneko zerbitzu hibridoa eskainiz», «Finantzaketa arduratsua sustatzen dugu» eta «Bezeroari egokitutako produktu- eta prezio-eskaintza izango dugu».

Finantzaketari dagokionez, LABORAL Kutxak ESG irizpideak dituzten produktuen katalogo bat du, Finantzaketa Jasangarriaren Esparruari (FJEari) lotuta. Horren bidez, kontrako alderdiei inpaktu positiboa sortzen lagundu nahi zaie.

Inbertsioari alorrean, entitateak ESGaren alorreko Inbertsio, Finantzaketa eta Aseguramendu Politika du, inbertsio propioak eta inbertsio-funtsen eta pentsioen gestorearenak gidatzeko. Hori dela eta, inbertsio-funtsen zorroak ESG aktiboetan egindako inbertsioak oso gaineratik daude sektoreko batez bestekotik. Azkenik, 2024az gerostik, kanpoko enpresa baten laguntzarekin, konpromiso-lan edo interakzio bat egin ohi dugu partaidetzapeko enpresetan, haien hobekuntza eta ESG balioekiko lerrokatzea sustatzeko.

Erreferentziak

[Urteko kontuak](#)<sup>3</sup>  
NEIS S4

<sup>3</sup> [https://korporatiboa.laboralkutxa.com/src/uploads/2026/05/LK-ctas-consolidadas-31-12-25-EU\\_WEB.pdf](https://korporatiboa.laboralkutxa.com/src/uploads/2026/05/LK-ctas-consolidadas-31-12-25-EU_WEB.pdf)

### 3. printzipioa: **Bezeroak eta kontsumitzaileak**

---

Aurreko guztiaren ondorioz, erreferentziazko erakunde batzuen aldetik kanpo-aintzatespenak jaso ditugu. Adibidez, Forbesek aitortu du LABORAL Kutxa Estatuan egoitza duen bigarren finantza-erakunderik onena dela, bezeroen gogobetetze-mailaren arabera. Bestalde, baliodun banku-jardueraren munduko erakunde nagusiak, GABV – Global Alliance for Banking on Values-ek, ahalik eta puntuaziorik handiena (100etik 100) eman dio LABORAL Kutxari, bezeroekiko hurbileko harremanen arloan.

2025eko aurrerapenen artean, jasagarritasuneko KPlak eta helburuak dituzten maileguen gorakada handia nabarmen daiteke —horietan, interes-tasa aldatu egin daiteke, betetze-mailaren arabera—. Bestalde, LABORAL Kutxak bere instalazioen irisgarritasunaren eta komunikazio-kanalen eta produktu zein zerbitzuen erabilerraztasunaren diagnostiko integrala egin du, kanpoko erakunde aditu batekin lankidetzan. Hona hemen diagnostikoaren helburua: pertsona guztiek zailtasunik gabe harremanak izateko aukera izatea, beren egoera fisiko edo kognitiboa edozein dela ere.

Azkenik, LABORAL Kutxak urtero kontsulta egiten die bezeroei, jasagarritasunaren alorrean lehenetsi beharreko ekintzei buruz zer iritzi duten jakiteko. 2025ean, bi mila balorazio baino gehiago jaso ziren, guztiak ere baliagarriak kooperatibaren jasagarritasun-estrategia diseinatzeko.

#### Erreferentziak

[Urteko kontuak](#)<sup>3</sup>  
NEIS S4

<sup>3</sup> [https://korporatiboa.laboralkutxa.com/src/uploads/2026/05/LK-ctas-consolidadas-31-12-25-EU\\_WEB.pdf](https://korporatiboa.laboralkutxa.com/src/uploads/2026/05/LK-ctas-consolidadas-31-12-25-EU_WEB.pdf)

## 4. printzipioa: **Interes-taldeak**



1. printzipioan adierazten denez, LABORAL Kutxaren funtsezko hiru ardatz identifikatzen dira Zentzuan, interes-talderik garrantzitsuenak, alegia: Pertsonak (langileak), Bezeroak eta Gizartea.

Kooperatibak prozesu iraunkorak jarri ditu martxan, haiekin guztiekin interakzioa izateko, haien iritzia jasotzeko eta haiei bere estrategiaren berri emateko.

Pertsonen alorrean, langilerik gehienak kapitalaren bazkide (jabe) dira. Kontseilu Errektoreko (kooperatibetako administrazio-kontseiluko) hamalau kideetatik lau langileak dira —horien artean presidentea—. Langile- eta jabe-izaera horrek lan-harremanak baldintzatzen ditu, eta barne-gardentasun handia izatea dakar, baita langileek erabakietan eta lortutako irabazietan parte hartzea ere.

Bezeroen arloan, 3. printzipioan adierazi denez, kanal ugari daude bezeroekin komunikatzeko eta haien itxaropenak ezagutzeko. Inkesten emaitzak kontuan hartzen dira, materialtasun-analisia egiteko, eta, beraz, estrategia zehazteko.

Erreferentziak

*Urteko kontuak*<sup>4</sup>

NEIS S1

NEIS S4

<sup>4</sup> [https://korporatiboa.laboralkutxa.com/src/uploads/2026/05/LK-ctas-consolidadas-31-12-25-EU\\_WEB.pdf](https://korporatiboa.laboralkutxa.com/src/uploads/2026/05/LK-ctas-consolidadas-31-12-25-EU_WEB.pdf)

## 4. printzipioa: **Interes-taldeak**

---

Azkenik, gizarteari gagozkiola, gizarte-, kultura- eta kirol-ekimen askotan parte hartzen eta laguntzen dugu. Esan bezala, irabazien % 25 gizartera itzultzea da hori gauzatzeko tresnarik garrantzitsuenetakoa, batez ere MONDRAGONen bidez. 2025ean, 45 milioi euro garbi baino gehiago bideratu ziren guztira.

Horrez gain, kooperatibak bere interes-taldeen mapa zabal eta zehatzago bat egin du materialtasun-analisan.

### Erreferentziak

#### Urteko kontuak<sup>4</sup>

NEIS S1

NEIS S4

---

<sup>4</sup> [https://korporatiboa.laboralkutxa.com/src/uploads/2026/05/LK-ctas-consolidadas-31-12-25-EU\\_WEB.pdf](https://korporatiboa.laboralkutxa.com/src/uploads/2026/05/LK-ctas-consolidadas-31-12-25-EU_WEB.pdf)

## 5. printzipioa: **Gobernantza eta kultura**



Jasangarritasunaren gobernantzan, LABORAL Kutxak egitura argi eta definituak ditu, gizarte- eta ingurumen-gaiak kontuan har daitezzen, bai estrategian, bai kooperatibaren egunerokoan. Azaldu denez, Asmoa estuki lotuta dago jasangarritasunarekin, bereziki gizarte-jasangarritasunarekin.

Jasangarritasun-politikak zehazten du jasangarritasunaren gobernantza, eta jasangarritasun-bulegoa (JBa) arduratzen da kooperatiban gauzatzen diren ESG proiektuak bultzatzeaz, koordinatzeaz eta sustatzeaz. Jasangarritasun-taldea departamentuetako arduradunek osatzen dute, eta Jasangarritasunaren Gestio Plana ezartzeaz arduratzen da. Era berean, Jasangarritasun Batzordea, Zuzendaritza Kontseiluko kide guztien partaidetza duena, jasangarritasun-estrategia zehazteaz arduratzen da. Buruzagi operatibo goren guztiek osatzen dute. Azkenik, JBak Kontseilu Errektorea, kooperatibako administrazio-organo nagusia, informatzen du aldian behin.

Kultura korporatiboari dagokionez, LABORAL Kutxaren lehentasuna da, gaitasun teknikoetatik haratago, Zentzuan definitutako funtsezko gai eta balioen berri ematea bere pertsoneri. Horretarako, entitateko pertsona guztiek hainbat egunetako lantegiak egiten dituzte, kontzeptu horiek guztiak ezagutzeko. LABORAL Kutxan sartzen diren pertsonen prestakuntza-ibilbidean, arreta berezia jartzen da prestakuntza kooperatiboan. Era berean, hainbat pertsonak GABVren lantaldeetan eta prestakuntza-saioetan hartzen dute parte, banka etikoaren printzipioak eta balioak ezagutzeko.

Erreferentziak

[Urteko kontuak](#)<sup>5</sup>  
NEIS G1

<sup>5</sup> [https://korporatiboa.laboralkutxa.com/src/uploads/2026/05/LK-ctas-consolidadas-31-12-25-EU\\_WEB.pdf](https://korporatiboa.laboralkutxa.com/src/uploads/2026/05/LK-ctas-consolidadas-31-12-25-EU_WEB.pdf)

## 5. printzipioa: **Gobernantza eta kultura**

---

Amaitzeko, pizgarriei buruz hitz egingo dugu. LABORAL Kutxako pertsona guztiek jasangarritasunarekin lotutako adierazleak dituzte ordainsari aldakorrean, hala nola karbono-aztarna murriztea edo paperaren erabilera txikitzea. Zuzendaritza Kontseiluak, bestalde, bere ESG helburuak ditu.

### Erreferentziak

*Urteko kontuak*<sup>5</sup>  
NEIS G1

---

<sup>5</sup> [https://korporatiboa.laboralkutxa.com/src/uploads/2026/05/LK-ctas-consolidadas-31-12-25-EU\\_WEB.pdf](https://korporatiboa.laboralkutxa.com/src/uploads/2026/05/LK-ctas-consolidadas-31-12-25-EU_WEB.pdf)

## 6. printzipioa: Gardentasuna eta erantzukizuna



Araudiak ezartzen dituen dibulgazio-baldintza guztiak betetzeaz gain, esparrurik eta estandarrik aintzatetsienetan parte hartzen saiatzen gara.

Adibidez, txostenak CSRDa betez egiteko betebeharra indarrean sartu baino lehenagotik, 2005etik alegia, LABORAL Kutxak GRIren jarraibideen arabera argitaratzen zuen Jasangarritasun Txostena. Era berean, urtean behin, arlo horretan egindako aurrerapenik garrantzitsuenen berri ematen zaie bezeroei, informazio hori laburbiltzen duen liburuxka baten bidez.

Orobat, aurrez aipatu denez, LABORAL Kutxak bat egin du jasangarritasun-balioak aldarrikatzen dituzten zenbait ekimenekin; esate baterako, Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioekin (BAPEkin) —erakunde horretako kide sinatzaile sortzailea da— eta Global Alliance for Banking on Values (GABV) erakundearekin. Ildo horretan, aipatzekoa da GABV erakundeak oso puntuazio handia eman diola LABORAL Kutxari (100etik 89) gardentasunaren alorrean.

Bestalde, CSRDa indarrean sartu aurretik, entitateak klima- eta ingurumen-txostenak (TCFD/TNFD) argitaratzen zituen, eta, bere borondatez, Zuhurtziazko Garrantziko Txostenaren (ZGTaren) ESG atala ezagutarazten zuen.

Horiek eta beste argitalpen batzuk [webgune korporatiboan](#) daude eskuragai.

Erreferentziak

[Urteko kontuak](#)<sup>6</sup>  
EINF

<sup>6</sup> [https://korporatiboa.laboralkutxa.com/src/uploads/2026/05/LK-ctas-consolidadas-31-12-25-EU\\_WEB.pdf](https://korporatiboa.laboralkutxa.com/src/uploads/2026/05/LK-ctas-consolidadas-31-12-25-EU_WEB.pdf)



**LABORAL**  
kutxa